

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduak.

PRACTICUM III

Ikastetxeko Tutorearen Gida

Practicum Batzordea
2016ko Iraila

Aurkibidea

1	Sarrera	3
2	Practicumeko partaideen eginkizunak	4
2.1	Ikastetxeko Koordinatzailea	4
2.2	Ikastetxeko tutorea	5
2.3	Unibertsitateko tutorea.....	6
2.4	Ikasleak	7
3	Helburuak eta kompetentziak.....	8
3.1	Practicum IIIko Kompetentziak.....	8
4	kompetentzietatik ikaskuntza-emaitzetara.....	9
5	Ebaluazioa.....	12
5.1	PRACTICUM III: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO TUTOREA.....	13

1 SARRERA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko (HEFAko) ikasketen Graduetan eskaintzen diren bi titulazioetan (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) berrikuntza handiena laugarren ikasturtea gehitzea izan da, Minorrarena hain zuzen ere.

Ikasturte berri honetan, garrantzi bereziki handia hartzen du Practicum IIIak: ikasleak **hamabi aste** eman beharko ditu eskola batean irakasle-lana behatu, horretan jardun eta bere lanaren inguruan hausnarketa eginez.

Maisu-maistrei esleitzen zaien profilaren arabera, ikasleek beren jarduera garatzen den testuingurua aztertzeko eta planifikatzeko gai izango diren profesionalak izan beharko dute. Horretarako, irakaskuntzaren ulergarritasuna eskakizun indibidualekin batera uztartzeko gai izan behar dute eta, era berean, **Ikastetxearen Proiektuaren** barruan talde batean lan egiten ere jakin.

Practicum hau, beraz, heziketa-ibilbidean guztiz txertatuta agertuko zaigu, ikaskuntzarako adierazgarri eta kontrasterako iturri gisa. Halaber, praktikak zentzu bat ematen die horren euskarri diren eta horien bilakaera orientatu dezaketen ezagutza teorikoei. Hori dela eta, PIII honetan garrantzi berezia izango du ikaslea egiten ari den **Minorraren alorrean jarduteak** eta bertatik jasoko duen esperientziak.

Era berean, **ikerketarako gaitasuna** ere adierazi beharko luke, ondoren burutu beharko dituen azterketa sakonagoak egiteko gai izan dadin.

Beraz, ikasleak Practicum III honen bidez eskuratu beharreko gaitasun nagusia da heziketa prozesua bizitzea eta prozesu honekin zerikusia duen ororen inguruan gogoeta egitea.

2 PRACTICUMEKO PARTAIDEEN EGINKIZUNAK

Praktika-denboraldia unibertsitateko irakasle-tutore batek eta praktikak garatzen diren ikastetxeko tutore batek zuzenduko dute.

Ikastetxeko tutorea eta unibertsitateko tutorea euren artean koordinatu beharko dira, praktiketan dagoen ikaslearen prestakuntza-beharrak egokitzeko eta adosteko.

Irakasle-tutoreak ezingo du praktiketan dagoen ikaslearekin familia-loturarik eduki.

2.1 IKASTETXEKO KOORDINATZAILEA

Practicumaren koordinatzaileak izango du praktiketan dauden ikasleen heziketa-jarduerak koordinatzeko ardura bere hezkuntza-zentroan, eta halaber, bere lana izango da unibertsitatearekin egoki diren harremanak egitea.

Aitortutako ikastetxeko zuzendariak, bertako ordezkari gorenaren den aldetik, ikastetxe horren barruan Practicuma egiten ari diren ikasleen zuzeneko erreferentzia izango diren koordinatzaile eta maisu-maistra tutoreak izendatuko ditu. Izendapen hori, ahal izanez gero, Practicumean dauden ikasleen koordinaziorako edo tutoretzarako lanak egitea eskatzen duten ikastetxeko irakasleen artean egingo da.

Eginkizunak:

- Practicuma egiten ari diren ikasleei ikastetxean egin beharreko egonaldia erraztea eta beharrezkoa duten informazioa eskaintzea.
- Ikastetxeko erreferentzia izatea unibertsitatearekin dituzten harremanetan eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean jardutea, bi erakunde horietan egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Maisu-maistra tutore bakoitzak Practicuma egiten ari diren ikasleen heziketa-prozesuan duten eginkizuna zehaztea.
- Practicumeko ikasleen espazioak eta ordutegiak antolatzea.
- Practicuma egiten ari diren ikasleen maisu-maistra tutoreekin egin beharreko bileren egutegia prestatzea.
- Praktikei hasiera emateko prozesuan Practicumeko ikasleei harrera egin eta laguntza ematea.
- Practicumeko ikasleei Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, horren kudeaketa eta antolamendua azaltzea, eta beharrezkoak diren txosten guztiak eskaintzea. Ikastetxe hori gizarte eta hezkuntza arloko zein testuingurutan kokatua dagoen azaltzea.
- Practicumeko ikasleek ikastetxearen bizitza instituzionalean parte har dezatela erraztea: klaustroa, bilerak, tutoretzak.

2.2 IKASTETXEKO TUTOREA

Practicumaren tutoretza lanak hauxe eskatzen du:

- Ikastetxeko Practicumaren koordinatzailearekin eta Practicumaren unibertsitate-arduradunekin elkarlanean aritzea, bi erakunde hauen artean egin beharreko lana koordinatzeari begira.
- Ikasturtean zehar finkatzen diren epealdietan praktiketako ikasleei harrera egitea.
- Praktiketari ari diren ikasleei praktikak egingo dituzten taldearen edo eskola-unitatearen ezaugarriei buruzko orientabideak ematea, baita Ikastetxeko Ikasketa Proiektuari buruz eta talde edo hezkuntza-unitatearen testuinguruari buruz ere.
- Practicuma egin bitartean ikasle bakoitzari laguntza eta aholkuak ematea, eta Practicumean egin beharreko eginkizunetan autonomia eta erantzukizun-sena sustatzea.
- Bere tutoretzapean dauden Practicumeko ikasleek burutu behar dituzten izaera orokorreko heziketa-ekintzak gainbegiratzea.
- Praktiketari dauden ikasleek gainerako irakasleekin koordinatzeko lanetan parte har dezatela sustatzea eta laguntzea, baita familiekin dituzten harremanetan ere, ahal den neurrian.
- Ikasleentzako heziketa-ekintza bereziak proposatzea, burutu behar duten Practicum plan orokorraren barruan.
- Practicumaren heziketa-prozesua baloratzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Ikastetxeak dituen baliabideak Practicumeko ikaslearen esku jartzea, agintzen dizkioten heziketa-ekintzak presta ditzan.
- Practicumeko ikasleen konpetentziak ebaluatzeko azken balioespena egitea.
- Practicuma egin bitartean izaten diren gertaerak unibertsitateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinaraztea.
- Practicuma hobetzeko egoki iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

2.3 UNIBERTSITATEKO TUTOREA

Practicumaren tutoretza-lanak hauxe eskatzen du:

- Talde batez arduratzea eta horren irakaskuntza-lana bere gain hartzea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako Graduetako enborreko irakasgai gisa.
- Practicum Dekanordetzak deitutako bileretara joatea.
- Ikasleei orientabideak ematea, ikastetxeko jardunaren irakaskuntza-epe garrantzitsu honetan argi ikus dezaten teoriaren eta praktikaren arteko lotura.
- Planteamendu teorikoei jarraipena ematen ahalegintzea eskoletan aplikatu daitezen, betiere ikastetxeko tutorearekin lankidetzat estu batetik abiatuta.
- Praktiketari ari diren ikasleekin bilerak antolatzea.
- Ikasleei Practicum programa erraztea.
- Beraren ardurapean jarritako praktiketako ikasleei arreta egin eta laguntzea, ikastetxeetan burutzen duten lana gidatzea eta beharrezkoak dituzten orientabideak eskaintzea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta bere ikasleen praktiketako tutorearekin harremanetan egotea.
- Bilera eta mintegietako egutegia finkatzea praktika-aldiari ekin baino lehen.
- Praktiketako kompetentziak lortzeko ikasleei orientabideak ematea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazio eta datuekiko konfidentzialtasunaren garrantziaz oharraraztea ikasleari.
- Practicumaren heziketa-prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziz, horiek hobetzeko helburuz.
- Ikasleak egindako lanak, aitortutako ikastetxeko maisu-maistra tutore bakoitzak egindako ebaluaketa eta praktiken jarraipenean egindako behaketa partehartzaileak kontuan izanik, Practicum-aldia kalifikatzea.
- Practicum hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

Bisitak ikastetxeetara

Practicum IIIak irakaskuntza-aldi honetan parte hartzen duten agente guztien arteko lankidetzat-harremana instituzionalizatzeko aukera ematen du. Batetik, ikastetxeko maisu-maistren lana lehen eskutik ezagutzeko eta baloratzeko aukera ematen du, eta bestetik, zubiak eraikitzen dira Unibertsitatearen eta Ikastetxearen artean.

Horrenbestez, praktikak egiten ari den ikaslea ikastetxean dagoenean, unibertsitateko tutoreak ikastetxe horretara koordinazio-bisita bat edo gehiago egingo ditu. Honako hauek izango dira bisita horren funtzioak eta edukiak:

- 1.- Ikaslea praktikak egiten ari den ikastetxearen ingurunea ezagutzea eta prozesuari buruzko dagozkion gai guztiak argitzea.
- 2.- Ikastetxeko tutorearekin gida honetan proposatzen ditugun prestakuntzari buruzko alderdiak adostea, horrela, hark ere praktikak egiten ari den ikaslearen prestakuntzan parte har dezan.
- 3.- Praktikak egiten ari den ikasleari laguntzea.

2.4 IKASLEAK

Practicumak hauxe eskatzen du:

- Esleitutako plazaren datuak egiaztatzea.
- Practicumaren fase desberdinak ezagutzea eta horietan parte hartzea.
- Bai aurretiko prestakuntzan eta bai unibertsitateko tutoreak proposatutako mintegietan parte hartzea.
- Ikastetxeko asistentziarako eta puntualtasunerako baldintzak betetzea eta horien araudia errespetatzea.
- Ikastetxeko tutorearekin eta unibertsitateko tutorearekin elkarlanean aritzea.
- Practicumaren programa eta horren garapena ezagutzea.
- Hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin errespetuzko harremanak finkatzea.
- Praktikaldian ezagututako eta jasotako informazioaren eta datuen babesa gordetzea.
- Unibertsitateko tutoreak zehaztutako ildoetara jarraiki, ebaluazio jarduerak burutzea.

3 HELBURUAK ETA KONPETENTZIAK

3.1 PRACTICUM IIIKO KONPETENTZIAK

Hezkuntzako graduak maisu-maistra gisa lan egiteko prestatzen du ikaslea, abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Aginduak finkatzen dituen betekizunen arabera, bertan jasotzen baitira Practicumaren bidez bereganatu beharreko konpetentziak:

Taula 1. Practicum IIIko konpetentziak eta deskriptoreak

PRACTICUM IIIko KONPETENTZIAK	DESKRIPTOREAK
Ingurune sozialeko eta hezkuntza komunitateko lankidetzaren modu ezberdinak ezagutzeko	LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN
Haur (0-3 eta 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) taldeetako elkarrekintza eta komunikazio prozesuak erregulatzea	ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK
Ikastetxe batean sor daitezkeen jardueraren eremu ezberdinetako hobekuntza proposamenetan parte hartzea	HEZKUNTZA- ESKU HARTZEA
Praktika jardunetik hausnartzea, irakaskuntza-jarduneko ahulgunez eta indargunez ohartzeko eta baita ikastetxearen eta hezkuntza sistemaren mugez ere.	PRAKTIKAREN HAUSNARKETA

4 KONPETENTZIETATIK IKASKUNTZA-EMAITZETARA

Konpetentzietan oinarritutako ikaskuntzak ikaskuntzaren prozesuak eta emaitzak eskatzen eta baloratzen dituen ebaluazioa behar du. Kasu honetan, ez da jarduera multzo bat, elkarren artean loturik dauden hainbat ikuspegi baizik, sinergian, arestian definitutako konpetentzia osatzeaz gain, hura lortzea ahalbidetzen dutenak. Konpetentzietatik zuzenean eratortzen diren "ikaskuntza-emaitza" deiturikoei buruz ari gara, horiek are gehiago zehazten dituzten alderdiak baitira.

Dena den, eta ikaskuntza-emaitzek zehaztasun-maila garrantzitsua izan arren, egokia litzateke ikaskuntza-emaitzen esanahia hobeto mugatzen lagunduko duten ebaluazio-irizpide batzuk zerrendatzea. Horiek dira ebaluaziorako erabiltzen diren adierazle edo irizpide zehatzak, hau da, ikaskuntza-emaitzak bereganatu edo lortu diren baloratzeko erabiltzen diren ebaluaziorako adierazleak edo irizpideak. Prozesu hori behar bezala jasotzen da taula honetan:

Taula 2. Konpetentziak, I.E., E.A.-k eta ebidentziak

KONPETENTZIA	IKASKUNTZA EMAITZAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK	AUKERAZKO EBIDENTZIAK
LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN	Minorraren alorretik, ikastetxearen eta hezkuntza komunitatearen inguru soziokulturalean parte hartzea	Hezkuntza komunitatearen eta inguruko gizarte eragileen arteko harremana bultzatzeko ekintzetan parte hartzen du.	ITEO ¹ Bisita
		Hezkuntza komunitateko parte diren guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardura eta etika profesionala erakusten ditu	ITEO Bisita
	Ikastetxeko taldean parte hartzea, minorraren alorretik dagozkion zeregin profesionalean inplikatur	Parte hartzen du irakaskuntza-kalitatearen hobekuntzen sorkuntzan eta garapenean, ikerketa pedagogikoan eta irakats-jarduera hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean.	ITEO MEP
		Hezkuntza komunitatean lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta konpetentziak adierazten ditu	Bisita ITEO
		Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarrizketaren, argudioaren, negoziazioaren eta adostasunaren bidez	ITEO Bisita
		Praktikak burutzen ari den mailako eta zikloko eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du	ITEO Bisita

¹ ITEO: Ikastetxeko Tutorearen Ebidentzia Orria

ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK	Minorraren alorretik, ikasgelako taldearen antolaketa eta dinamika aztertu eta parte hartzea	Norbanakoaren garapen integrala lortzeko maisu-maistrak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu	Egunerokoa MEP² Mintegia Foroa	
		Ikaste antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituen estrategiak erabiltzen ditu	ITEO MEP	
		Balioetan oinarritutako hezkuntza eta garapen sozio-kognitiboa ahalbidetzen ditu	ITEO MEP	
		Ikasleak, egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu, ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko	ITEO MEP	
	Norberaren emozioak eta harremanak erregulatzea	Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak ezartzen eta erregulatzen ditu	ITEO Bideoa	
		Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta ikasleen arteko errespetuzko jarrera sustatzeko	ITEO Bisita	
	HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA	Programazio unitateak edo bestelako hezkuntza esku-hartzeak planifikatu, burutu eta ebaluatzea minorraren alorretik.	Pedagogia lerroa, antolaketa eta gela barruko dinamika aztertzen eta interpretatzen ditu, minorrean eragiten duten alorrei erreparatuz	MEP Mintegia Foroa
			Praktika garaian garatzen diren programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz	MEP Mintegiak Foroak
Klaseak prestatzen eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiekin eta baliabide egokiekin bat eginez			MEP Bideoa	
Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratzen eta prestatzen ditu materialak eta baliabide didaktikoak			ITEO MEP	
Tutorizazio bileretan, maisu-maistren laguntzaile gisa, eta ikastetxeko bestelako bileretan (maila, zikloa, klaustroa) parte			ITEO MEP	

² MEP: Memoria/Ebidentzia-karpeta/Portfolioa.

		hartzten du	
	Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen diseinuan, grapenean eta ebaluazioan parte hartzea eta laguntzea	Ikastetxean martxan diren plan, proiektu eta esperientzia berritzaileak ezagutzen ditu eta minorrean eragiten duten alorrak antzematen ditu berauetan	MEP Mintegia Foroa
		Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du	MEP
PRAKTIKAREN HAUSNARKETA	Irakaskuntza praktikaz hausnartzea minorraren ikuspegitik	Egindako behaketen inguruko hausnarketa egiten du, lanbidearenak diren azterketa irizpideak erabiliz	MEP Mintegia Foroa
		Ikastetxeko tutoreekin eta ikaskideekin batera norberaren parte hartzeaz eta hobetze aukerez hausnartzen du	Bisita Mintegiak Foroak
	Minorreko ezagutza teorikoak praktika profesionalarekin erlazionatzea	Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan behatutako egoerekin eta, bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu	MEP Mintegiak Foroak
		Ikastetxean antzemandako kompetentzia profesionalen eta horren inguruan norberak dituenen arteko antzekotasun eta desberdintasunak behatzen eta egiaztatzen ditu	MEP Mintegiak Foroak

5 EBALUAZIOA

Bi agentek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea: batetik, unibertsitateko tutoreak, eta bestetik, Practicuma egin den ikastetxeko tutoreak.. Horietako bakoitzak bere protagonismoa izango du ikaslearen azken kalifikazioan, unibertsitateko tutorearen ebaluazioak, azken notaren %70a balioko du. Gainerako %30a ikastetxeko tutoreak baloratuko du.

Irakasgaiaren beraren konpetentziak lortzea da practicumaren helburua, eta horrenbestez, bi agenteek alde aurretik zehaztutako ebaluazio-irizpideak dituzte.

Horrez gain, honako aldaera hauek kontuan hartzea komeni da:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Egonaldia edo lana, bietako bat gainditzen ez badu azken nota gutxiegia izango da 1. deialdian. Egonaldia bada gainditu ez duena, ez ohiko deialdian ez aurkeztua izango du.
- Ez ohiko deialdian ere gainditzen ez badu, practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean.

Bestalde, bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek hertsiki eskatuko dira:

- Ikastetxeko ordu guztietan bertaratzea. Arrazoitu gabe hiru goiz edo arratsalde huts egitea nahikoa izango da egonaldian gutxiegia jartzeko.
- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan %80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da.
- Ikasleak kontuan izan behar du hiru Practicumetan gutxienez bi ikastetxetan aritzea eskatuko zaiola.

Jarraian xedatzen diren ebaluazio-irizpideak ikasleek beren praktika-aldian lortu behar dituzten konpetentziekin daude lotuak, eta beraz, bi tutoreek horiek hartuko dituzte kontuan ikasleak ebaluatzeko orduan.

Praktiketako egonaldia bakarrik gaindituz gero, nota ez da hurrengo ikasturteetarako gordeko; hau da, matrikulatu eta praktiketako egonaldia berriro egin behar du.

Salbuespenak: dokumentazioarekin justifikatutako kausa larriengatik praktiketako egonaldia urtebetez luzatzeko eskatu ahal izango da; horretarako, ordea, nahitaezkoa izango da berriro matrikulatzea.

Praktiketako ikastetxean egonaldia bakarrik baliozkotzen den kasuetan, luzapen hori eskatu den ikasturterako bakarrik izango da baliozkoa. Salbuespeneko ikasle batek Tutoreak eskatutako lanak egin ezean edo gainditu ezean, hurrengo ikasturtean, egonaldia egin beharko du praktiketako ikastetxean edo, hala badagokio, salbuespen berri bat eskatu beharko du.

5.1 PRACTICUM III: EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO TUTOREA

IKASTETXEKO TUTOREA:.....

IKASTETXEA:.....

IKASLEA:

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

Ebaluazio-irizpideak ikasleek lortu behar dituzten konpetentziekin daude lotuta. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko tutorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da, eta beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabean irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

Taula 3. Lankidetzaz hezkuntza komunitatean

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN	Hezkuntza komunitateko guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardura eta etika profesionala erakusten ditu
	Irakaskuntza-kalitatea hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean parte hartzen du
	Lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta konpetentziak adierazten ditu
	Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarriketen eta adostasunaren bidez
	Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du
	BALORAZIO OROKORRA: (1-10)

Taula 4. Elkarrekintza eta komunikazio prozesuak

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO-PROZESUAK	Antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituzten estrategiak erabiltzen ditu
	Egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu jarduerak ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko
	Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak menperatzen ditu
	Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta giro egokia sustatzeko
	BALORAZIO OROKORRA: (1-10)

Taula 5. Hezkuntza esku-hartzeak

KONPETENTZIA	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
HEZKUNTZA ESKU- HARTZEAK	Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratzen eta prestatzen ditu materialak
	Tutorizazio bileretan eta ikastetxeko bestelakoetan parte hartzen du maisu-maistren laguntzaile gisa
	Klaseak prestatu eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiekin eta baliabide egokiekin bat eginez
	Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du
	BALORAZIO OROKORRA: (1-10)

OHARRAK:

.....

KALIFIKAZIOA (1-10):

.....(e)n, 201.....(e)koren(e)(a)n